


Denbora-


1 Hizki salda

Hizkiekin jolastea eta hitzak hizkien artean ezkutatzea atsegin du Ametsek. **Non gorde ote ditu lapikoko hitzak?**




2 Puzzlea

Asko kostata, baina azkenean jarri ditu Josuk puzzleko ia zati guztiak bere lekuan. **Zein falta zaio?**



3 Osatu irudiak

Mikelen ezkontzan gorbatarekin zeuden gonbidatu asko. **Gorbatak erditik moztu ditugu; bi zatiak lotzea da zure lana.**



-pasak



4 Zazpi aldeak

Urko korrikalari fina da. Irabazi zuen azken lasterketan ateratako argazkia da hau. Zazpi gauza aldatu ditugu. Aurkitu!



5 Kopiatu laukiz lauki

Andonik gihartsu egon nahi du, eta pisua jasotzen aritzen da egunero. Kopiatuko al duzu haren pisuaren marrazkia?



Jolasa

Kartak dantzan

Kartak ez dira musean, puntuan edo karta partidan jokatzeko bakarrik, ez; oso bestelako jolasak ere egin daitezke

1 Hartu kartak, banatu multzotan, eta jarri buruz behera lurrean edo mahai gainean.



2 Jokalariak karta bat hartuko du eskuan. Kolpe txiki batekin, karta multzoetako batera jaurtiko du. Jokalariaren abileziaren arabera, jaurtitzeko distantzia handiagoa edo txikiagoa izan daiteke.

3 Helburua: kartei buelta ematea. Jaurtiketaren ostean, gorantz begira geratu diren kartak baztertu egingo dira.



4 Kartarik gabe geratzean edo kartak hainbat alditan jaurtitzean, partida amaituko da. Zenbat kartari eman dien bira edo zenbat aldiz jaurti behar izan duen kontatu beharko du jokalaria bakoitzak.

5 Bakarka nahiz taldeka jolas gaitzke. Karta gehien lortu dituen taldea edo laguna izango da irabazlea.

